

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Y el kaos es la partitura en la que está escrita la realidad.

J.A.N.

JAN/DDT.

Iraupena: 13'27".

10 euro.

Eskola zaharreko errezeta, preskribitu ez duten gaitzentzat

ALONSOTEGIN (Bizkaia) entseatzeko duen talde honek urte asko darama kontzertuak egiten eta jendeari pentsarazten hardcore kontzientziatua murgilduta. Honako lan hau Bilboko DDTrekin batera argitaratu dute eta taldekideek hobeen ezagutzen duten estiloko bederatzikanta aurkituko dituzue. Gaztelaniaz abestuta, funtsean eskola zaharreko hardcorea, abiadura azkarrekoa, egiten dute, tarteka emo edo post-hardcorearen ñabardurak zein erdibideko eritmo-

ak ere batzen badituzte ere. Minutu eta erdira heltzen ez diren kantuak dira, ondo pentsatutako amorruez josiak eta berorri Jodida Actitud Normal izena eman zion HHH taldeak bezala harira doaz, bihurturik gabe. Tartean, gainera, Euskal Herrian hain maitatua den Spermbirds talde alemaniarra eta Sub-Pop diskoetxeko ardi beltz Seaweed bertsioneatu dituzte.

www.myspace.com/jodidaactitudnormal

Tito - J.A.N.

«Europako hardcore irekia aldarrikatu dugu beti, AEBetako hardcore uniformearen aldean»

Dagoeneko taldeak 16 urte bete ditu. Nola bizi duzue hori?

Gure asmoa ez da inori ezer erakustea, ezta helburu zehatz batzuk betetzea. Baina elkarrekin ondo pasatzen dugun lau lagun gara eta, jakina, denboraren kabuz teknikoki eta hitzak idazten apur bat hobetu dugu. Bitxia zera da: gure sasoiaren zegoen jende gehiena dagoeneko ez dagoela kontzertuak antolatzen, ez da kontzertuetara joaten... Ikusle asko gazteak dira, bere sasoiaren hardcorea bizi izan

ez zutenak, eta horientzat jotzea erronka da. Aspertuko bagina, utziko genuke, baina oraindik badugu zer esan.

Hitzei garrantzia handia ematen diezue...

Bai, ahalegintzen gara hitz gutxitan gauzak azaltzen: esaldi gutxi, neurri batean metaforikoak direnak eta ohiko hitzetaz aldentzen direnak.



Buruhauste handirik gabe, baina pentsarazi dezatela.

“Sistema hiltzorian dago neurrigabeko handinahiaren ondorioz”.

Bai. Kapitalismoak, handinahiaren muturrean, bere burua jateari ekin dio; baina berriro berpizten ari da. Gizarteak ezin izan du edo ez du nahi izan egoera hori baliatu kapitalismoa suntsitzeko, eta ez da inoiz

honako hau baino aukera hoberik izan. Klase ertaina porrot egin duen irabazlea bihurtu da.

“Men egitea” da gure akats handiena?

Hezkuntzarekin zuzenki lotuta dago. Guztiok gara inkonformistak, baina benetan zerbait esan behar dugun unean isilik gelditzen gara. Gakoa da gauzei sustraietatik heltzea.

Diskoan Spermbirds eta Seaweed taldeen bertsioak egin dituzue. Zergatik horiek?

Seaweed aspaldi ezagutu genuen, ia kasualitatez. Grungearen baitan sortu zen arren, indarra eta melodia batzeko modu berezia zuen eta asko gustatu zaigu beti. Bide batez, norbaiti ezagutarazi nahiko genioke. Eta Spermbirds da European izan den hardcore talde bereziene-tako bat. Europako hardcore irekia aldarrikatu dugu beti, AEBetako hardcore uniformearen aldean. ■